

Martxoak 5

Eraginkortasun energetikoaren Munduko Eguna

Gaur, martxoak 5, Eraginkortasun Energetikoaren Munduko Eguna da. Donostiako Udalak bat egiten du jardunaldi horrekin. Jardunaldi horren helburua klima-aldaketaren aurka borrokatzea eta gizarte iraunkorrago baterantz aurrera egitea da, non energia ekoizteko baliabideak, berriztagarriak izango diren, baliabide horien kontsumo arduratsua eginez.

Marisol Garmendia Ekologia zinegotziak gogorarazi duenez, "Klima aldaketa eragiten duten berotegi efektuko gasen isurketen zati handi bat energia kontsumoaren emaitza da. Bizitegi-sektoretik eratorritako isurketak guztizkoaren %17.4 dira Donostian, eta zerbitzuen sektoretik eratorritakoak ia %18. Horregatik, garrantzitsua da eragile guztiok, herritarrak barne, gure energia-eraginkortasuna hobetzeko eta kontsumoa murrizteko jarduerak abian jartzea. "

Udalak bere eskumenen esparruan jarduten du egoera horri aurre egiteko. Horrela, Eraikuntzaren Eraginkortasun Energetikoaren Ordenantza berria argitaratu berri da. Ordenantza horren helburua da eraikin berrietan zein lehendik daudenetan eraginkortasun energetiko handia sustatzea, bai eta eraikuntzan energia berriztagarrien ezarpena handitzea ere. Beraz, eraikita dagoen parkearen energia- eta karbono-aztarna murriztea du helburu, eta, aldi berean, eraikinen barruko klima-konforta ingurumenaren aldetik jasangarriagoa izatea.

Gainera, eraginkortasun energetikoa hobetzeko lan garrantzitsuak egiten ari dira udal-eraikinetan, bai galdaretan, bai elektrizitatean, bai eraikin horien azterketa energetikoan. Adibide gisa, Amara Berri Ferreriasen, Intxaurren Zarategin eta Abegietxean galdarak ordeztu dira, erregaian urtean 145.636 kWh-ko energia aurreztearekin, urtean 27 tona CO₂ murriztearekin eta urtean 8.738 euroko aurrezpen ekonomikoarekin.

Elektrizitatearen efizientzia energetikoko jarduketetan, LEDak jarri dira ikastetxeetan; horrek esan nahi du urtean 148.644 kWh aurreztu direla, urtean 29 tona CO₂ gutxiago eta urtean 14.335 euro gutxiago. Jarduera horiek 10 ikastetxetan eta erretiratuen 2 etxetan egin dira.

Halaber, 16 energia-auditoria egin dira 15 ikastetxetan eta Kontxako hondartzako kabinetan. Auditoretza horiek funtsezko informazioa ematen dute, ondoren energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduerak garatzeko.

Birgaitze energetikoari dagokionez, Catalina de Erauso Ikastetxea birgaitu da, eta horrekin lortu da kalifikazio energetiko oso eskasa duen eraikin bat a kalifikaziora iristea, energia-kontsumoa murriztuz eta eraikinaren erosotasuna hobetuz.

Azkenik, autokontsumorako eguzki-instalazio fotovoltaikoak hedatzen ari dira udal-eraikinetan: Abegi Etxea (15Kw), Suhiltzaileen Parkea (56Kw), Ondarreta Aterpetxea (7kw), Ulia Aterpetxea (25kw), Udal Ibilgailuen Parkea (25 kw), Viveros Lau Haizeta (15 kw), Jareño Kulturetxea (33 kw), Kulturetxea (15 kw). Instalazio horien urteko aurrezpen zenbatetsia 148.644 kWh-koa da; horrek esan nahi du urtean 30,07 tona CO₂ eta 14.976 euro aurreztuko direla.



Gaur egun, Intxaurren eta Zuhaitziko kiroldegietarako beste bi instalazio garrantzitsu lizitatzen ari dira, eta 2021ean zehar beste 5 instalazio jarri ahal izango dira martxan.

Berotegi-efektuko gasak murrizteko helburuak lortzeko, ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea. Duela gutxi, Udalak "familiak klimaren alde" kanpaina abiarazi du, gure etxeetan energia gutxiago kontsumitzeko.

Parte hartzea oso erraza da, udal webgunearen bidez edo 943 48 33 90 telefono zenbakira deituz eman behar da izena. Harremanetarako datuak eskatuko zaizkie eta, ondoren, izena eman duten pertsoneri inprimaki labur bat bidaliko zaie kontsumo-datuei eta etxeko oinarritzko ezaugarriei buruz. Parte hartzen duten etxeek tresna berri bat izango dute kontsumoa eta faktura energetikoa murrizteko. Hiru hilean behin, energia-txosten berezi bat jasoko dute, kontsumoaren eta energia-gastuaren bilakaeraren berri emateko.

Dagoeneko familia askok eman dute izena, baina oraindik 9 egun falta dira izena emateko epea amaitzeko (martxoaren 14a). Beraz, herritarrak proiektuan parte hartzera animatzen ditugu.